

BERRIA - Urriak 2, osteguna

Uda-pasa

Sagar motak ezagutzeko plaza

Pagoetako natur parkean Sagardotarako Sagarren Erakusketa egingo dute estreinakoz asteburuan


Ekaitz Agirre Donostia

Hernanin eta Astigarragan (Gipuzkoa) azken asteotan egin dakoari jarraiki, sagarra ardatz duen asteburua antolatu dute Pagoetako natur parkean. Estreina-koaz, sagardoa ekoizteko erabil-

tzen dituzten sagarren erakus- keta jarriko dute, eta hainbat sagar motarekin probak egiteko asmoa ere badute. Erakusketa Iturraran Parkean jarriko dute, 10:00etatik 14:00etara, eta sarrera doan izango da. Parkeko informazio gunea da Iturraran, eta Villabona eta Aia lotzen dituen errepidea hartu behar da hara iristeko.

Pagoetako natur parkean Iba- rrola Goikoa eta Orbelauin base- rrietan ditu sagarrondo minte- giak Gipuzkoako Foru Aldun- diak. Mintegi horietan fruta

arbolak landatzen dituzte, sagar- dotarako sagarrondoak batez ere. Erakusketan Euskal Herriko, As- turiasko (Espainia) eta Frantzia- ko 49 sagar mota jarriko dituzte. Egingo dituzten proben artean, sagarren azukre maila neurtuko dute, errefraktometroaren bidez, eta sagarren gogortasuna, pene- trometroarekin. Sagarra heldua dagoen edo ez jakiteko, almidoi- a- ren proba egingo dute, sagarrak erditik jo eta iodotan bustita. Era- kusketa ikustera joaten direnek sagar dastatzeari parte hartzeko aukera izango dute.



Sagardotarako sagarren erakusketa egingo dute, BERRIA

Jardunaldi mikologikoak antolatu ditu Urretxak

HERNANI Urretxa elkarteak antolatuta, jardunaldi mikologi- koak egiten ari dira egunotan Hernanin (Gipuzkoa). Aste oso- rako, onddo eta perretxikoak ardatz dituen argazki erakuske- ta bat jarri dute ikusgai Biteri kultur etxean, baina asteburu- rako antolatu dituzte ekitaldi nagusiak. Larunbatean irteera mikologikoa egingo dute; 07:30ean abiatuko dira, Atse- gindegitik. Igandean, berriz, era- kusketa mikologikoa jarriko dute Plaza Berrin.

Klik-klak Arabako Errioxa

